

# INTELEKTUAL EUSKOTARREN IBILBIDEA EUROPARANTZ: «JUNTA PARA AMPLIACION DE ESTUDIOS»-EN BITARTEKOTZA (1907-1936)

**Prudentzio Garzia Isasti**

Geografia eta Historian Lizentziatua eta Bibliotekaria.

92a dela eta, kezka eta ardua haundiak sortu dira gizarteko sektore guztietan. Muga ekonomikoen desagertzeak berebiziko eragina izango duela herritar guztien bizitzan ez du inork ukatzen, aldrebes, behin eta berriro alde guztietatik errepikatzen zaigun mezua da, eta mezu hau hitz bakar batez laburbil genezake irudimen-ahalegin bereziegirik gabe: desafioa, Europaren desafioa. Mendebal Europarekiko homologatze hau, era berean sutsuki antsiaturiko nahia eta beldurrez itxarondako unea da, desafio honek era askotako erantzunak eragiten duelarik: besteak beste, Kongresu honen moduko hausnarketa saioak.

Nire komunikazio honek espazioz eta denboraz diferentek diren zirkunstantziatara eramango gaitu, baina problematika oso antzeko bati buruz arituko da, hain zuzen ere Mendebal Europarekin homologatzeko nahiak Espainako zenbait intelektual eta instituziotan eragindako erantzunetaz, eta bereziki, zenbait intelektual euskotarrek horretan jokaturako paperaz, XX. mendeko lehen herenean. Bere azken helburua, finean, hauxe baino ez da: erakustea Europaren desafioa elementu kostantea izan dela Europako periferiaren (eta hortxe dago Euskal Herria) politikagintza eta kulturagintzan azken ehun urteetan gutxienez.

## II

Gure hausnarketa XIX. mendeko azken hamarkadan has ten da eta markoa Europa da bere osotasunean hartua. Hamarkada horretan Europako periferiako nazio askotan maila goreneko porrot eta desastreak gertatzen dira; guretzat eza-gunena, eta zalantza barik, garrantzitsuena, Espainako 98-ko Desastrea da, inperio kolonialaren azken ondarren galtzea Estatu Batuen mesedetan, erabateko hondamen militar lotsagarri baten ondoren. Ez zen Espainaren kasua izan bakarrik, hamarkada horretan bertan, bata bestearen atzetik urte gutxi

tartean, Portugalek, Frantziak, Greziak eta Italiak antzeko derrota militar iraingarriak pairatu zituzten, baita ere izugarritzko kontzientziakrisi nazionalak eragin zituztenak (1).

Umilazio nazional horietatik sortzen da gero Gainbeheraren Literatura izenez ezagutuko dena, guretzat guztiz garrantzitsuak diren bi arazotan sakonduko duelarik: Europa latinoaren gutxiagotasuna Europa anglosaxoi eta germaniarraren aldean (Estatu Batuak barne, gaur bezala), eta beraien mailara iristeko bidean buruzko hausnarketa eta proposamenak (2).

Espainan zentratuz, indar haundiz azpimarratzen da Hezkuntza sistema moderno baten beharra, Ingalaterra edo Estatu Batuek duten modukoa, eta herritarren kultur maila nabarmenki altxatu behar diren ezinbestekotasuna. Halaber, «europartzeko» sloganak orduantxe hartzen du indarra, lehenago asmatua bazen ere. Neurri konkretuen artean bat interesatzen zaigu bereziki: ikasle espainarrak Europako unibertsitateetara ikastera bialdu behar diren, «pentsio» («beka» gaurko terminologian) sistema baten bitartez. Ildo honetan, ondorengo urtetan seinalatzen da adibide gisa Turkiak berak Espainak baino lau aldiz ikasle gehiago dauzkala Alemanian, edo Japoniaren kasuan arreta berezia jartzen da, 1968-ko Meiji Iraultzaren ondorengo bere aurrerapen harrigarrian erreparatuz eta honetan Europara ikastera masiboki bidalitako ikasleek jokaturako papera azpimarratuz; Espinaren «japoniartzeko» bat erreklamatzeko (3).

(1) Ikus PABON, Jesús: «El 98 acontecimiento internacional» in «Días de ayer: historias e historiadores contemporáneos» Barcelona Alpha, 1963.

(2) Sasoiko moda zientifikoari jarraiki, arraza anglosaxoi edo germaniarraren nagusitasunaren inguruan planteatzen da. Gaur egun, berriaz, desoreka ekonomikoak azpimarratzen dira. Funtsean problematika bera da.

(3) Puntu honetarako eta beste askotarako ere, ikus: CACHO VIU, Vicente: «La Junta para Ampliación de Estudios, entre la Institución Libre de Enseñanza y la generación de 1914» in SANCHEZ RON, Jose Manuel, coord. «La Junta para Ampliación de Estudios e Investigaciones Científicas 80 años después» Vol II, Madrid: CSIC, 1988.

Giro honen ondorioz sortzen da 1907-ko urtarrilaren 11-ko Erret Dekretuaren bitartez «Junta para Ampliación de Estudios» delakoa («Ikasketak Osatzeko Batzordea», hemendik aurrera JAE deituko duguna). Sortzeko arrazoiak dekretuan bertan seinatzen dira:

«El pueblo que se aísla se estaciona y descompone. Por esto todos los países civilizados toman parte en ese movimiento de relación científica internacional, incluyendo en el número de los que en ella han entrado, no solo los pequeños estados europeos, sino las naciones que parecen apartadas de la vida moderna, como China, y aún la misma Turquía, cuya colonia de estudiantes en Alemania es cuatro veces mayor que la española, antepenúltima entre todas las europeas, ya que son solo inferiores a ella en número Portugal y Montenegro». (4)

Kontsiderazio horietan oinarriturik, helburua izango da mugimendu zientifiko horretan integratzea, eta bidea momentu horretan mundo guztiko nazio guztiak erabiltzen zutena, Txinatik hasi eta Estatu Batuekin bukatu arte, Italia, Rumania, Argentina eta abar luze bat barne sartuz: milaka ikasle atzerrira ikastera bidaltzea, dirulaguntza sistema baten bitartez, beren herritara itzultitakoan Unibertsitate, Zientzia eta Kulturaren buruzagitza har zezaten. Hain zen indartsua mugimendua, ezen eta kalkulatu da 1904-1905-ean 7000 ikasle atzerritar ari zela ikasten bertako unibertsitatetan.

Espainari dagokionez, JAE-ren lana ez da izango bakarrik ikasleak atzerrira joaten laguntzea, baizik eta baita ere bere esku izango du ikerketa zentru txikiak sortzea itzultitako ikasleak ikerkuntz lanean jarrai zezaten. Horrela sortu ziren «Centro de Estudios Históricos» delakoa, Ramon Menendez Pidal-en lehendakartzapean, batez ere Historia eta Filologia arloko lanetarako, eta «Instituto Nacional de Ciencias Físico-Naturales» delakoa, Ramon y Cajal-en zuzendaritzapean (JAE-ren lehendakaria izan zena ere hil arte, 1935-can), bakoitza sail eta ikerlari ugariz osatua.

1907-an hasten den ibilbide honetan, Ramon y Cajal-en lehendakartzapean sortutako instituzio honen historia gora-behera ugariz betea dago. Izan ere, Zuzendaritza Batzordea Espainako puntako intelektualean artean osatu zen, beren joera politiko pertsonaletan erreparatu gabe; baina, orohar, «Institución Libre de Enseñanza»-tik sortutako gizonek eraman zuten aurrera, batez ere 1907-tik 1932-ra bere idazkari eta «alma mater» izan zen Jose Castillejo-ren eskutik («Institución Libre de Enseñanza»-ri nabarmenki atxekia). Ezaugarri honek etengabeko erasoak eragin zituen. Espainako eskubiko sektoreen aldetik, eta gora-behera haundiak bere funtzionamenduan, gobernu aldaketa ugarien arabera. Eraso hauen aurrean, JAE-ko gizonek etengabe azpimarratu zuten instituzio honen izaera apolitikoa eta gora-behera politikotatik at mantendu beharra, arrakasta erlatiboz hala ere. (5)

Bere funtzio nagusiaeri dagokionez, hau da, «pentsioak» banatzea, esan dezagun 29 urtetan (1907-tik 1936-ra) 2000 bat lagunek lortu zutela bere bitartez «pentsio» bat atzerrian ikasteko, gehienak Frantzia, Alemania, Suitza edo Belgikan, baina baita ere Ingalterra edo Estatu Batuetan. Eskatzaile gehienak unibertsitariak eta gazteak ziren (irakasle edo lizen-

tziatu hutsak) baina baita ere ugariak ziren maisu-maistrak, artistak, edo oraindik ikasleak zirenak, eta gehienak 20-30 urte bitartekoak ziren. Aukeratutako ikasketa motari buruz zera esan daiteke: JAE-k nabarmenki bultzatu zituela Pedagogia arloko ikasketak, xede horretako ikasketarako «pentsio» bana-kako edo kolektibo ugari banatuz (6). Hementxe dago Errepublikara garaiko Hezkuntz politika indartsu eta berrizalearen oinarria. (7)

JAE-ren historia, formalki ez bada ere, Guda Zibilaren hasierarekin bukatu zen; bere postua, filosofia erabat desberdin batekin, gobernu berriak 1939.an fundatutako CSIC-ek hartuko zuen.

Balantze gisa zera esan dezakegu: JAE-k eraturako beka-sistema eta ikerketa zentrueri esker Espainak lortu zuen, neurri apal batean ez bada ere, sasoiko mugimendu zientifiko eta kultural modernoan integratzea, nazioarte mailan homologagarriak ziren ikerlari multzo garrantzitsu bat formatuz, baina ahalegin hauek guztiz minoritarioak izan ziren Espainako gizartearen osotasunean hartzen badugu erreferentziatzat; maila horretan ez zen homologaziorik lortu, eta Errepublikaren saioa motzegia suertatu zen fruiturik emateko herritarren kultur mailan.

### III

Ugariak izan ziren JAE-ren bitartez Europa edo Amerikara bere ikasketak osatzera joan ziren euskotarrak. Kontaketa zehatz bat egin ez badugu ere, begiratu orokor bat botata JAE-ko Oroitza Txostenetan berehala ohartzen gara euskotarren multzoa, nahiz eta proportzioz nahiko txikia izan, orotara lagun ugariz osatua zela, era guztietako ikasketak burutzeko bekatuak, baina bereziki medikuntza inguruko gaietan nabarmen-tzen, nahiz eta honen arrazoirik ezin inon aurkitu.

Pentsiodun horien artean bada izen ezagunik, eta lan osatuago baten aurrekin bezala, zilegi bekit honetako banaka batzuren berri ematera mugatzea nere ekarpen hau, JAE-k euskotarrentzat suposatu zuenaren adibide gisa.

TELESFORO DE ARANZADI da aipatu nahi dugun lehen kasua. Bartzelonako Unibertsitateko Katedraduna, Etnologia, Antropologia eta Historiaurre inguruko lan ugarien egilea, guxtienez bi edo hiru aldiz izan zen bekatua, gai horien inguruko ikasketak egiteko Parisen eta Berlinen. Eskaritu seinatzen dituen merezimenduen artean toki berezia hartzen dute bere lanek atzerrian (bereziki Frantzia, Suitza eta Alemaniako goi mailako aldizkaritan) aurkitu duten ohiartzuna, publikazio eta kritika laudoriotsuen bitartez. Baita ere aipatzekoa da gai horietan (alegia, Etnologia, Antropologia eta Historiaurrea) sakondu beharraz ematen duen justifikazio edo baliagarritasun soziala:

«...ciencias importantes para dilucidar los orígenes y caracterización etnológica del pueblo español, base esencial esta última de la firmeza de su personalidad, así como la etnología en general para el desarrollo del comercio exterior, en especial del extra-europeo» (8).

(6) Pentsioak banakakoak edo kolektiboak izan zitezkeen, azken hauek normalean hilabete bat edo biko jiratarako zirelarik edo kongreso eta abarretan parte hartzeko.

(4) Ikus: SANCHEZ RON, Jose Manuel: «La Junta para Ampliación de Estudios e Investigaciones Científicas 80 años después», in op. cit. vol. I, pp. 1-61. Ondoren azaldutako zenbait datu ere hemendik hartuak dira.

(5) Bere urterik onenak gobernu liberal edo errepublikanoan eza-gutuko ditu, gobernu kontserbadore edo diktaturapean nahiko moteltzen zelarik bere dinamika.

(7) Ikus: MARIN ECED, T.: «Los pensionados en educación por la Junta para Ampliación de Estudios y su influencia en la pedagogía española» Unibertsitate Konplutenseko Filosofia et Hezkuntz Zientziatiko Fakultatean irakurritako tesis, 1986-ko uztailaren 7-an.

(8) JAE-ko Artxiboa, Telesforo de Aranzadiren espediente, 1908-ko eskaria.

Jakina, zientzia horietaz ari dela, neurri handi batean «distribución del índice cefalométrico» bezalako gaiet buruz ari da. Puntu honetan, orohar bezala, Aranzadiren lana erabat parekagarri eta homologagarria da bere sasoiko Europako joera zientifikoeekin, bai metodologian (burhezurren neurketa), bai helburutan («determinación de la firmeza de la personalidad del pueblo español» edo «el desarrollo del comercio exterior, en especial el extra-europeo»), baita ere kalitate orokorrean.

XAVIER ZUBIRI da aipatu nahi dugun hurrengo kasua. Madrileko Unibertsitateko Katedraduna, gutxienez hiru aldiz izan zen bekatua, Alemania, Frantzia eta Italian ikasketak egiteko, nahiz eta lehenengo bekari uko egin osasun arazoengatik. Bere eskaritan, curriculum-arekin batera, bereziki azpimarratzen da atzerrian egindako ikasketak:

«...doctor en Teología por la Universidad de Roma... licenciado en Filosofía por la Universidad de Lovaina... ha residido durante dos años en la Universidad de Lovaina» (9).

Baita ere azpimarratzen du College de France edo Sorbonne-ko zenbait irakasleekin zeukan harremana. Datu berezi gisa aipa dezagun bere lehenengo eskarian merezimendu gisa jarritako lana:

«...D. Jose Javier Zubiri y Apalategui (sic) presentó el el II Congreso de Estudios Vascos celebrado en Pamplona durante el mes de Julio de 1920 un trabajo titulado Que significa la Universidad para el País Vasco... mereciendo la general aprobación» (10).

20 urte baino ez zituen orduan.

Ziurtagiriaren izenpetzailea, bestalde, ANGEL APRAIZ BUESA da, orduan Eusko Ikaskuntzako idazkaria, Salamanca-ko Unibertsitateko Katedraduna Literaturan eta JAE-k gutxienez behin bekatua, 1913-an, New York-era joateko, sei hilabetez, Columbia-ko Unibertsitateko irakaskuntz metodologia eza-gutzeko. Datu kurioso gisa ere gehi dezagun hemen bere espedientearen aurkitutako sinadurarik gabeko gomendiozko gutun baten oharra:

«...es muy trabajador... es serio y se tiene en su capacidad el buen juicio que inspira todo hombre joven que se dedica con cariño a una especialidad. Forma parte de la minoría que en Salamanca se preocupa en serio de su cátedra» (11).

Ikusten dugun bezala, unibertsitateko arazoak ez dira atzo goizeko kontuak, eta gomendiozko gutunena ere sarri erabilitako errekurtoa zen, nahiz eta oinarri ofizialetan ez ageri.

Adibide hauekin bukatzeko, aipa dezadan ANTONIO MADINAVEITIA TABUYO-ren kasua, «Institución Libre de Enseñanza»-ri hestuki atxekitako familia batekoa. Granadako Unibertsitateko Kimika Organikoko Katedraduna, gutxienez behin izan zen bekatua, 1919-an, Pariseko «Institute Pasteur»-en ikasketak egiteko. Hortaz gain, oso harreman hestua mantendu zuen JAE-rekin, 1916-tik aurrera Kimika Biologikoko Laborategiko Zuzendaria izan bait zen (Laborategia JAE-ren menpean zegoen). Bere espedientearen argitalpen zientifiko ugari azaltzen da, eta horiekin batera Alemania, Frantzia edo Suitza jaso zuten ohiartzun eta kritika laudoritsuak. (12)

Adibide gehiago jar genezakeen, adibidez, Luis Amonarena Blasco, Iruñeako «Escuela Normal de Maestros» delakoaren (Maisu-Maistra Eskola) irakaslea, Frantzia eta Belgikan Pedagogia inguruko gaiak ikasteko behin baino gehiagotan bekatua, edo María Concepción Almandoz Mendizabal, Astigarragako eta Amorotoko eskola nazionalen maistra, baita ere Frantzia ikasteko bekatua, edo Tomas Garmendia y Landa, Otsagikoa, medikua, urte bete bekatua Alemanian medikuntza inguruko gaiak ikasteko eta abar. Baina gure helburua adibide batzuk ematea baino ez zen, inolaz ere ikerketa exahustibo bat egitea.

#### IV

Komunikazio honetan zehar zenbait gauza erakusten salatu gara: bata, nazio diferenteen arteko desorekak nazio ahuletan eragindako erantzunetan oso erabilia izan zen bat zela ikasleak atzerria (bereziki Mendebal Europara) ikastera bidaltzea, eta bestea, euskotarren kasuan mugimendu hori neurri handi batean Madrileko JAE-ren bitartez egin zela, ikasle honek kasu askotan Europako ikerlariekin homologatzea lortu zuten (gogora dezagun beren eskaeratan bere lanek Europan sortutako ohiartzunetaz edo hango unibertsitateetan duten harremanetaz egindako azpimarraketa) eta beldur gabe esan dezakegu bere lana, orohar, Europako korrante zientifiko eta intelektual nagusiekin pareka daitekeela maila guztietan. Hala ere, maila europearreko intelektual edo zientifiko hauen lanak Euskal Herriko gizartearen lortutako eragina baloratzeak, askoz ere ikerketa sakonago bat eskatuko liguake. Beraz, konforma gaitzen momentuz gertakari intelektual baten berri-emate hutsaz.

(9) JAE-ko Artxiboa, Xavier Zubiriren espediente, 1926-ko eskaria

(10) JAE-ko Artxiboa, Xavier Zubiriren espediente, 1921-eko ziurtagiria.

(11) JAE-ko Artxiboa, Angel Apraiz Buesaren espediente, datarik gabeko gutuna.

(12) JAE-ko Artxiboa, Antonio Madinaveitia Tabuyoren espediente, datarik gabeko zenbait paper.